

txintxarri



Aurten ere, danbor hotsak

Herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleek koronabirusak eragindako egoerara moldatu dute San Sebastian bezperako ospakizuna / 8-9

TXINTXARRI

Garapena bultzatzeko

Beterri-Buruntza Mankomunitatea izeneko egitura eratu dute eskualdeko sei udalek / 3

22. Korrika apirilaren
8an iritsiko da
Lasarte-Oriara,
ostiralez, goizean
goiz, 07:11n / 7

Gesalaga Okelan
Zarautz Beltzak RT
taldeek garapena
erdietsi dute etxean
zein Iruñean / 10

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

AURREMATRIKULAZIO DATAK
URTARRILAK 17TIK - 28RA

Informazio gehiago:
minifiesto.com

Eralda keta baten alde.

2020 JAIOAK

MAiTE
ESTETIKA ARETOA

*Negua da fotodepilazioa egiteko
unerik egokiena*

Zatoz gure estetika aretora!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma

Kargu uzte bat eta beste hainbat gai landu dituzte

Urte berriaren hasierarekin batera egin du udal korporazioak urteko lehen ohiko udalbatzarra. Azkarra eta eztabaida gutxikoa izan da eta kargu uzte bat izan da tarteko. Joxe Pikabea Bereziartua EH Bilduko zinegotziak dimititu egin du

Txintxarri

Minutu batzuk berandu ekin zion udal korporazioak urteko lehenengo ohiko udalbatzarrari. Gai ordenari heldu, eta lehenengo puntuarekin eman zioten hasiera. 2021eko abenduaren 9an ospatutako udalbatzarraren aktaren onarpena landu zuten, eta aho batez onartuta itxi zuten gaia.

Bigarren gaia galdera eta erreguen ostean lantzeko proposamena egin zuen alkateak gero. Bi gai besterik ez zeuden eztabaidatzeko, Joxe Pikabea Bereziartuaren dimisioa bigarren goan, eta zinegotzi gisa saio osoa egin zezan eskatu zuen alkateak ordena aldaketa. Onartu zuten proposamena eta gerorako utzi gaia.

Horrela, galdera eta erreguen tartea zabaldua, EAJko Jon Antxordokik eskatu zuen hitza, eta hainbat gaien inguruan galdetu zion gobernu taldeari. Mugikortasun planaren gainean galdegin zuen lehenik, jakinaraziz Santa Ana karkabako arekaren egoera txarrean dagoela. Askatasuna parkeko estalkiaz galdetu zuen gero, eta bonuen kanpainaz ere bai. Azken horrekin jakin nahi zuen bertan parte hartu zuten komertzianteei ordainketak egin zaizkien.



Urtarrilaren 13ko ohiko udalbatzarraren irudia. TXEMA VALLES

EH Bilduk ere hartu zuen hitza eta bi gai mahaigaineratu. Aurrekontuei buruz galdegin zuen Estitxu Garmendia zinegotziak lehenik, eta erraustegian gertatutako azken suteaz gero. Azken horren gainean jakin nahi zuen balizko istripu baten aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak inolako protokolorik baduen galdetu ote duen udal gobernuak.

Saioa amaitu aurretik landu zuten Pikabearen kargu uztea.

Esker hitzak zuzendu zizkien Pikabeak korporazioko kideei, baina batez ere alderdikide izan dituenek. Alkateak berak ere eskerrak eman zizkion udalbatzarra osatu izanagatik.

Udalbatzarra amaituta, Sergio Lucas lasarteoriatarak hartu zuen hitza. Arranbide kalean dagoen haur parkea hondatuta dagoela eta eremu horren erdia soilik erabil daitekeela jakinarazi zuen eta horren gainean galdetu.



Pablo Mutiozabal kaleko paretan egin duten pintada. Dagoeneko ezabatu dute. EAJ

Batzokitik gertu agertutako pintada gaitzetsi du EAJs

Horrelako ekintzak "nekagarriak" direla azaldu du alderdi jeltzaleak, eta "behingoz desagertzea" eskatu

Txintxarri

Batzoki ondoan agertutako pintaketa salatu du Lasarte-Oriako EAJ-PNVk. Pablo Mutiozabal kalean dago alderdiaren elkartera sarbidea eta atari horren ondoan agertu da, asteazkenean, urtarrilaren 19an.

Alderdiak TXINTXARRI-ri bidalitako ohar batean azaldu du beti arbuatu dituztela horrelako ekintzak, eta gaineratu jokabide horiek alderdiari zein bere elkarteari erasotzeaz gain, edozein jardura politikorekin zerikusirik ez duten pertsonen ondareari ere kalte egiten diela.

Urte askotan nagusi izan diren gisa horretako ekintzak behingoz desagertzea gustatuko litzaioke EAJri: "Nekagarriak dira ekintza horiek, eta are gehiago, bizitzen ari garen garai honetan".

Udal taldearen bidez horrelako ekintzak gaitzesteko udal Bake eta Bizikidetzeta Mahaian protokolo bat osatzeko eskaera egin du alderdi jeltzaleak, eta azaldu dutenez, aho batez onartua izan da. EAJ-PNVk, berriaz, bizikidetzaren, errespetuaren eta iritzi aniztasunaren alde lanean jarraituko duela ziurtatu du.

Seigarren olatuaren intzidentzia jaisten hasi da Lasarte-Orian

Urtarrilean, hilaren 19ra arte, 1.566 positibo zenbatu dituzte gure herrian, 2020ko martxotik atzemandakoen herenak

Txintxarri


Pixkanaka-pixkanaka, jaisten ari da koronabirusaren seigarren olatuaren eragina, baita Lasarte-Orian ere. Urtarrilaren 17tik 19ra 150 kutsatze diagnostikatu dituzte gure herrian; tarte horretan,

astebete lehenago, 347. Edonola ere, intzidentzia tasa metatua oso altua da oraindik: 5.907,06 kasu 100.000 biztanleko.

Pandemia lehertu zenetik, 2020ko martxotik, gure herrian 4.841 kutsatze zenbatu dituzte,

datu ofizialen arabera, betiere. Positibo horien guztien herenak aurtengo urtarrilean detektatu dituzte. Hilaren 19ra arte, 1.566. Hori izaten ari da intzidentzia gehieneko hilabetea orain arte, nabarmen gainera; bigarrenen, abenduan, 942 kutsatze atzeman zituzten.

Eskualdeko sei udalerrietan 595 positibo atzeman dituzte hilaren 17tik 19ra: 159 Hernanin, 150 Lasarte-Orian, 145 Andoainen, 56 Astigarragan, 51 Usurbilen eta 34 Urnietan.



Aurtengo urtarrila izaten ari da intzidentzia gehieneko hilabetea herrian. TXINTXARRI



Eskualdeko udaletako ordezkariak, Hernanin, mankomunitatearen eratze batzarrean. AIURRI

"Eskualde izaera sendotzea" helburu

Beterri-Buruntza Mankomunitatea eratu dute Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek. Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez izendatu dute lehendakariorde

Txintxarri

Ofiziala da. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek Beterri-Buruntza Mankomunitatea izeneko egitura bat sortu dute, "eskualde izaera" indartzeko eta bertako garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzeko. Hernanin egin dute eratze batzarra, eta udalerrri horietako ordezkari ugari bertaratu dira. Horien artean, Lasarte-Oriako udal korporazioko zinegotzi Jon Antxordoki (EAJ-PNV) eta Nuria Fernandez (PSE-EE). Lehen zuzendaritza batzordeko kide izango da azken hori, lehendakariordea, zehazki,

jeltzaleek eta sozialistek bi kargu garrantzitsuenak euren artean banatzea erabaki eta gero. EH Bilduk publikoki salatu du jokabide hori.

Hauxe da mankomunitatearen zuzendaritza batzordearen osaera: Andoaingo alkateorde Marijose Izagirre (EAJ-PNV) izango da lehendakaria; Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez, (PSE-EE) lehendakariordea. Beste lau pertsona batzordekide izango dira: Astigarragako zein Hernaniko alkate Xabier Urdangarin eta Xabier Lertxundi (EH Bildukoak biak), Urnietako alkate Javier

Segurado (EAJ-PNV) eta Usurbilgo Udaleko zinegotzi Beñat Larrañaga (EH Bildu).

"Interes alderdikoiak"

Mankomunitatea eratu eta gero, eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jeltzaleen eta sozialisten jarrera deitoratu dute. "Akordioa egin, eta eskualdeko indar bozkatuena zuzendaritza kano uztea adostu dute: sei herrietan 41 zinegotzi ditugu. Interes alderdikoiak lehenetsi dituzte". Edonola ere, azpimarratu dute "mankomunitatearen eta eskualdearen alde" konpromisoz lanean jarraituko dutela "aurrerantzean ere".



NEURE KABUZ
JULEN BASTERRA

Ezer ez kuriositaterik gabe

Lagun batek esan zidan behin kuriositaterik ez izatea hilik egotea bezalakoa zela. Halaxe da, eta une hartan arrazoi osoa eman nion bezala, baieztapenari indar bera aitortzen diot gaur: ez dakigunean zer jakin, zeri ekin edo non begiratu existentziak indarra galtzen du, kolorea. Beste modu batera esanda, bizitzaren enkantua kurioa izatean datza. Izan ere, jakin-min hau pultsio bital bat bezalakoxea da, bizitza zabaltzen duen elixir bat; aldiz, kuriositatearen gabezia heriotzaren pultsio bat bihurtzen da, amaierara gerturatuz pozoia bezala txikitzen gaituena. Argi dago, ezagutu nahiak elikatzen duela gizakia, baina, jendea ez da ohartzen zerk duen pixkanaka hiltzen, eta ez, ez nator azken bi urteotako gaiak hitz egitera. Aurrekoan Lao Zi aipatu nizuela ahaztu gabe, Su ta Gar taldearen azken diskoko (2016 urtea? Ene!) kantu baten hitzak apur bat moldatuz lema hau azpimarratu nahiko nizuke gaurkoan: *Kuriositaterik gabe ezer, kuriositaterik ezean zuzen heriotzera!*"

Ezagutu edo ez ezagutu. Horra hor auzia. Gauza arraroa dirudi, baina, inozentzia elementu garrantzitsua bihurtzen da auzi honetan. Zer dela eta? Bada, inozentziak galdetu egiten duelako, naturala den moduan, ez baitaki. Elementu honi esker, ezagutzaren prozesua hasi egiten da. Ezagutu nahi dugu eta, inozentzia lagun, galderak munduratzten ditugu, ados. Hori bai, abiapuntua besterik ez dugu aipatzen honela. Ezjakinaren kuriositateak inozentziak eragindako galderara heldu gara soilik. Gauzak honela, garrantzitsuena falta zaigu orain: galdera(k) erantzutea. Zer esanik ez, horrek ibilbide luzea dakarrela berarekin. Edozein modutan ere, epe luzeak zerbait izate horrek ematen dio geure bizitzari ere luzapena. Eta ez larritu, lasai hartu, izan ere, galdera(k) erantzuteko lana hartzeak berak bizitzeko ilusioa pizten baitigu, jaikitze arrazoi bat emanez. Galdera erronka eta pizgarri moduan ulertu beharra dago.

Zer barazki dira urte sasoiakoak? Nola egiten da arrain zopa bat? Zer nolako bizimodua daramate Mongoliako estepako nomadek? Zergatik ari da klima aldatzen? Nola sendatzen da minbizia? Noiz hasten dira sagarrondoak sagarrak ematen? Non dago Uzbekistan? Zenbat lapur eta parasito bizi dira besteen kontura? Zer nolako patroirritimikoak darabiltza saltsa estiloko musikak? Nor izan zen Isadora Duncan? Zer da gizakia? Non gaude gu unibertsoan?

Galderak galdera, eta honaino heldu garela ikusita, gutariko bakoitzak bere buruari egin diezaiokeen galdera bat luzatu nahiko nuke: zer jakin nahi dut nik? Galdera kurioa da eta ez dakit benetan galdetzen diogun geure buruari zer den egiazki jakin nahi dugun hori. Ez gara besteen galderak erantzuteko jai. Eta ez gara besteen erantzunak zalantzarik egin gabe onartzeko etorri ere, noski. Kuriosoak izateko eta galdetzeko etorri gara, eta hau denoi dagokigun afera bat da. Gogoeta amaitzeko, hona ezjakin honen gomendioa: ondo pentsatu dezagula zer nahi dugun benetan jakin eta hari ekin diezaiogula. Kuriositatea bidelagun, bizi gaitzen betiko.

2021-2022 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira. B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: EKAINAREN 23RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK URTARRILAREN 31RA ARTE

DIRULAGUNTZAK BADAUDE. GALDETU BALDINTZAK

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00



Jon Antxordoki Euskara Saileko batzordeburua GurasoLandiako abenduko saioan, gurasoei ongietorria ematen. TXINTXARRI

Geroz eta familia gehiagok, euskaraz

Familiartean euskara indartsuago transmititu dadin, GurasoLeku programarekin lanean ari dira herriko hainbat eragile. Geroz eta familia gehiago dira bertan parte hartzera animatzen direnak, eta goranzko joera hori "pozgarria" da bultzatzaileentzat

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzua, Ttakun Kultur Elkartea, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeak eta bietako guraso elkarteak, Andre Joakina Enea haur-eskola, eta Muntteri-AEK lanean ari dira euskara familiartean indartsuago transmititu dadin. Hori lortzeko baliatzen dute GurasoLeku egitasmoa, haurrak ahalik eta euskal hiztun osatuenak egiteko helburuarekin. 2014-2015 ikasturtean abiarazi zuten eta urtetik urtera adin tartea handitzen joateaz gain –lehenengo urtean 2 urteko haurren familientzat izan ziren saioak eta gaur egun 0-5 urte artekoekin zuzenduta daude–, izen emateek ere gorantz egin dute. "Pozgarria" da joera hori bultzatzaileentzat. 2021-2022

ikasturteko datuak ezagutarazi dituzte. Orotara, 181 familiak eman dute izena; horietatik hamabost GurasoLagunen ari dira; 42, GurasoTegin; eta 124, GurasoLandian. Horiek guztiek erakutsi dute familiartean euskaraz aritzeko borondatea.

Ikasturtea hastearekin batera jarri ohi da martxan izen emate epea, eta hala egin zuten aurten ere. Ikastetxeetan, irakasleek bideratuta jasotzen dute gurasoek ekimenaren berri, eta bertan banatzen zaien eskuorriaren bidez ematen dute

	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022
Ikasmailak	HH2	HH2-HH3	HH2-HH4	HH2-HH5	HH2-HH5	HH0-HH5	HH0-HH5
GurasoLagun	10	30	15	11	5	4	15
GurasoLandia	12	30	22	43	70	71	124
GurasoTegi	36	34	38	42	34	31	42
Guztira	58	96	75	96	109	106	181

GURASOLEKU EGITASMOAN PARTE HARTU DUTEN FAMILIEN KOPURUAK URTEZ URTE

GURASOLEKUN PARTE HARTZEN ARI DIREN FAMILIAK "GUSTURA" ARI DIRELA AZALDU DUTE ANTOLATZAILEEK

izena. Ikasturteak aurrera egin ahala, urrian eta azaroan ere onartu zituzten inskripzio berriak, eta gaur-gaurkoz programa guztiak martxan dauden arren, oraindik ere badago horretarako aukera.

GurasoLagunen bidelariek eta bidelagunek bat egiten dute. Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten gurasoak dira lehenak, eta euskaraz aritzen direnak bigarrenak. Elkarrekin euskaraz aritzeko hitzorduak partekatzen dituzte. Bina talde osatu dituzte ikasturte honetan; bat HH0-2 adin tarteko gurasoena, eta beste bat, berriz, HH3-5ekoena.

GurasoTegik, berriz, haurrak ikastetxean dauden bitartean gurasoei euskara eskolak hartzeko aukera eskaintzen die; euskaraz komunikatzeko oinarritzko gaitasunak lantzen dituzte. Programa horretan hiru talde osatu dituzte. Horietako bat goizez elkartzen da, eta beste biak arratsaldez.

GurasoLandia da hirugarren programa. Guraso eta seme-alabei zuzenduta dagoen aisialdia eskaintza da, eta bi helburu nagusi ditu: tarte atsegin bat igarotzea eta elkarrekin euskaraz arituz gozatzea. Bi adin tarte bereizi dituzte: 0-2 urte artekoena batetik, eta 2-5 urte bitartekoena, bestetik –sei talde ari dira parte hartzen azken horretan–. Txikien taldeak dagoeneko hiru saiotan parte hartu du, eta 2-5

EGITASMOAN PARTE HARTU NAHI DUTEN FAMILIEK ORAINDIK ERE BADUTE IZENA EMATEKO AUKERA

urtekoenak, aldiz, bigarrena egiten ari dira.

Programaren batean zein bestean parte hartzen ari diren gurasoak "gustura" ari direla nabarmendu dute antolatzaileek. Hala antzeman ahal izan dute hori, GurasoLandiako bi saioetan.

GurasoLandiako azken bi saioak

Abenduaren 10ean egin zuten GurasoLandiako bigarren saioa. Nerea Mendizabal aditua gonbidatu zuten gurasoekin bere ezagutza partekatzerako. Solasaldia hasi aurretik, Jon Antxordoki zinegotziak ongietorria egin zien egitasmoan parte hartzera animatu ziren gurasoei. Euskarari familian parte hartzearen dion aldetik, programak duen garrantzia nabarmendu zuen. Udaleko Euskara Sailak eta Ttakun Kultur Elkartearen hitzarmenean jasotako jarduerak da.

Agurren ondoren, Mendizabalek hartu zuen hitza. Talde txikia osatu zela baliatuta, beraien behar edo nahietara moldatzeko borondatea adierazi zuten hizlariak. Horretarako, zergatik bertaratu ziren eta zer ikasi nahi zuten galdetu ziren. Banan bana erantzun zieten partaideek: frustrazioa kudeatzen jakitea, noiz debeku bati eutsi... Bakoitzak berea izendatu zuen. Eta guztientzat lagungarria zen zerbait ematen ahaleginduko zela argituta ekin zion saiori hezitzaileak.

Urtarrilekoan, berriz, jaioberrientzako lehen sorospen ikastaroa egin dute. Asteartean, hilaren 18, elkartu dira Antonio Mercero gunean eta Angel Vicentek Gurutze Gorriko ordezkariak gidatu du saioa. Haur baten balizko larrialdi edo istripu baten aurrean nola jokatu azaldu die aretoan bildutako gurasoei, eta bizipenak partekatzeak aukera ere izan dute. Hizlariak ekarritako panpina baten laguntzarekin jaso ahal izan dute ezagutza praktikoa ere.

Baserriko pertsonaia guztien azalean

Antzerkia izaten ari da urtarrileko kultur agendaren osagaietako bat. Markeliñe Teatroak 'Ganbara' taularatu berri du kultur etxean, eta Tanttaka Teatroaren txanda izango da hilaren 22an: 'Mi hijo solo camina un poco más lento' ikuskizunaren emanaldia egingo du

Txintxarri

Markeliñe Teatroak *Ganbara* ikuskizunaren emanaldia egin zuen urtarrilaren 18an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Zuzeneko musikak lagunduta, baserriko pertsonaia guztien azalean jarri zen Itziar Fragua aktorea.

Familia baserria saltzeko bueltatuko da antzezlaneko protagonista jaioterrira. Ganbaran sartu eta bertan utzitako gauzen artean topatuko du kutxa. Haren barruko gauzek oroitzenak piztuko dizkiote. Amonaren tokilla arrosak hura gogoraraziko dio, eta harekin batera, sorgintzat jo zituzten emakumezkoak ere. Beste senideak eta izakiak ere oroitu ditu: baserri lanetan zebilen aita, zakurra, ardia, ama... Hala, ondare hori guztia galtzeko beldurra piztuko zaio.

Itziar Fragua aktoreak gorpuztu zituen pertsonaia guztiak, eta ia hitzik erabili gabe adierazi zituen sentipenak. Roberto Castro musikariak lagundu zion giroa sortzen, eta atzeko pantailan proiektatutako irudiak leku desberdinetan kokatu ditu ikusentzuleak.

Antzezlanak, kultur eta familia ondarea babesteko garrantzia nabarmentzeaz gain, emakumezkoek baserrian izan



Itziar Fragua aktoreak gorpuztu ditu *Ganbara*-ko pertsonaia guztiak. TXINTXARRI

duen garrantzia ere balioetsi nahi du.

Familiarteko harremanak

Tanttaka Teatroa konpainiak *Mi hijo solo camina un poco más lento* antzezlan taularatu du Manuel Lekuona Kultur Etxean, hilaren 22an, 20:00etatik aurrera. Gaztelaniazko bertsioa ekarriko dute Lasarte-Oriara. Mia izeneko emakume bat da protagonista. Etxean lana besterik ez du egiten, eta bere deabruen aurka borrokatzen du, familiako hainbat kide

zaintzen dituen bitartean: gurasoak, senarra, alaba eta Branko semea. Azken horrek mugikortasuna pixkanaka garalazten dion gaixotasun bat du, eta 25 urte bete dituen egunean, familiak festa bat prestatu dio.

Jatorrizko istorioa Balkanetatik dator, Ivor Martinic-ek idatzi baitzuen. Itzulpena Aizpea Goenagak egin du, eta Fernando Bernuesek zuzendu. Antzezleak batzuk dira Mireia Gabilondo, Ane Gabarain, Klara Badiola edota Miren Arrieta.

Aurtengo inauteriekin zer egin erabakitzeko bilera egingo dute

Koronabirusa dela eta, Lasarte-Oriako Udalak herritar eta eragileekin hitz egin nahi du, otsailean zer egin aztertzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak bilerara deitu du urtarrilaren 27an, ostegunarekin, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gaia, hauxe: aurtengo inauteriekin zer egin, koronabirusa berriz ere oldartuta dabilela ikusita. Konpartsekin elkartu nahi du, festa hori ospatu ala ez adostu, eta, baiezkotan, nola egin hausnartu eta erabakitzeko. Gonbidapena irekia dela zehaztu du udalak; hortaz, edozein herritar bertara daiteke bilerara.

Bestalde, udalak jakinarazi du aurtengo inauterietarako dirulaguntzak eskatzeko epea ireki duela, eta otsailaren 14ra arte egongo dela irekita, astelehenarekin. Ospakizun horretan jarduerak aurrera eramaten dituzten norbanakoek zein konpartsek egin ditzakete eskaerak. Udalak 12.598 euro bideratuko ditu horretara. Edonola ere, arestian esan bezala, ikusteke dago azkenean ospatuko diren edo ez aurtengo inauteriak. Laster jakingo dugu.



TXINTXARRI

Urtea hasteko modu ederra

Ogi Berri okindegiak Eguberrietako zozketako saria banatu du. Arantxa Etxeberriak irabazi du aurtengoa, "betiko bezero" batek. "Zenbait urtetan gertu ibili naiz, zerbaki gutxitara, eta poz galanta hartu dut oraingoan. Bazen garaia!", adierazi du, irribarretsu. Poltsikoratu dituen 1.500 euroen zati batekin bidaia bat egingo duela aurreratatu du, Aste Santua baino lehenxeago: "Urteko garai horretan, jende gehiegi dago toki guztietan".


EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK, urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (1-2 mailak).**



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!



Duela bost urtetik hona nabarmen hazi da TXINTXARRI aldizkariaren atari digitaleko trafikoa. TXINTXARRI

Olatu handia izan da 2021eko ere

TXINTXARRI aldizkariak bere atari digitaleko iazko trafikoaren datuak aztertu ditu. 2020ko zenbakietara iritsi ez bada ere, oso gertu geratu da, eta urte horretako igoera izugarria egonkortu du. Duela bost urteko parametroekin alderatuta, adierazle asko bikoiztu egin ditu

Txintxarri

Hasi da 2022. urtea eta olatu artean jarraitzen dugu. Ez soilik koronabirusak eragindako horietan, baita uhin birtualetan ere. TXINTXARRI aldizkariak garaiera altuko bat hartu zuen 2020an, inoiz baino datu hobekatu lortu zituelako www.txintxarri.eus atari digitalean. Iazko urteak eman zuena aztertu eta gero, esan dezakegu ez garela apenas jaitsi; zentimetro gutxi batzuk baino ez. 2021ean 292.893 bisita jaso ditu gure atari digitalak, hileroko batez beste, 24.407. Kontuan izan behar da abuztuaren ondoren hartzen dituela lantaldeak, eta erritmoa nabarmen jaisten dela. Hortaz, azpimarratzeko moduko datuak dira. 49.517 erabiltzailek nabigatu dute webguneko edukietan barrena, eta 118.296 saio hasi dituzte; horietako bakoitzak, batez beste, 2,39ri ekin die, eta 2,48

orrialde bisitatu ditu ordenagailu, sakelako telefono edo tableta hartu duen bakoitzean. Bi minutu eta 42 segundo igaro ditu birtualki gurekin, batez beste.

Esan bezala, TXINTXARRI-ren webguneko trafikoa inoiz baino altuagoa izan zen 2020an, eta 2021eko zifrak ez dira urrun geratu: saioak jaitsi dira gehien, %7, eta bisitak, %4. Kontrara, irakurleek orrialde gehiagotan zehar nabigatu dute saio bakoitzeko (2,39 2020an, eta 2,48 2021ean), eta luzeagoak izan dira irakurraldi horiek: bederatziko segundo luzeagoak, zehazki.

**IAZKO OTSAILEAN
HAUTSI GENUEN
MARKA: 45.973
BISITA JASO
GENITUEN**

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, ia aldaketarik ez (49.602 duela bi urte, eta 49.517 iaz). Hortaz, hauxe da lantaldeak atera duen ondorioetako bat: 2020ko igoera izugarri hori egonkortzea lortu duela. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Hasi berri dugun urterako erronka izango da 2023ko urtarilean argitaratuko dugun artikuluan *egonkortu* hitza erabiltzea, eta ahal dela, *hazi* edo *gainditu*. Horretarako, jakina, zuen konfiantza ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere.

Bost urtean, bikoiztu

Atari digitaleko datuak perspektiba zabalago batetik aztertze aldera, azken bost urteetako bilakaerari erreparatu diogu. Artikulua ilustratzeko erabili dugun grafikoan ikus dezakezuen, nabarmena da zifra eta ehunekoaren gorakada

2021. urteko eduki ikusienak

Honako eduki hauek izan dira bukatu berri den urteko hamar eduki irakurrienak:

- 'Amatxo eta amaren' hiru alaba: 2.946 ikustaldi.** Familia ereduie buruzko seriea landu zuen TXINTXARRI-k. Erreportajeetako bat izan zen Agirre-Mantzizidor familiari egindakoa.
- Bi lasarteoriatar Dominikar Errepublikak konkistatu nahian: 1.388 ikustaldi.** Mikel Arruti eta Leire Mayoz herritarrek *El Conquistador del Caribe* telesailaren parte hartu zuten.
- Izeiren aita eta "familia zabala": 1.142 ikustaldi.** Familia ereduie buruzko seriea jorratu zuen TXINTXARRI-k. Piezetako batean Mikel Olaiz Garmendia eta Izei semea izan ziren protagonista.
- Lau orduko joan-etorriak, aitarekin egoteko: 1.075 ikustaldi.** Familia ereduie buruzko serieko beste erreportaje bat, kasu honetan, espetxean dagoen Ibon Fernandez Iradi eta familiaren egunerokoari buruzkoa.
- Ttakun Kultur Elkarteak Eguberrietarako prestatutako jarduerak: 508 ikustaldi.** Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean, indarrean zeuden osasun neurrietara doitutako egitaraua prestatu zuen Ttakunek.
- Adopzioak bilakatu zuen ametsa errealitate: 497 ikustaldi.** Esan beharrik ez dago familia ereduie buruzko artikulua sortak ikusmin ikaragarria sortu zuela irakurleengan. Otaegi-Perez familiari buruzko erreportajeak ere bai.
- Arrapide pasealekuko araudia: 453 ikustaldi.** Landaberri ikastolara joaten diren autobusen eta beste ibilgailuen arteko arazoak saiheste aldera, Arrapide pasealekuan trafiko araudi berria jarri zuten.
- Jaioterrian, herritarren berotasunean: 473 ikustaldi.** Tokioko Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina irabazi eta gero, Maialen Chourrout piraguitak omenaldi beroa jaso zuen herrian.
- 30 urte herriko haurren aisia euskaraz lantzen: 443 ikustaldi.** Ttakun Kultur Elkarteak 1991. urtetik ari da haurren aisia lantzen, euskaraz, urtean zehar eta udaren batez ere. Iaz bete ziren 30 urte aurreneko txoko eta udalekuak egin zituztenetik.
- Buruntza mendiko gurutzeara eraistean harira, gogoeta: 387 ikustaldi.** Memoria historikoa eta, zehazki, 1936ko altxamendu militarren ondorengo urteetan gertatu zenari buruz lanean ari den Islada Ezkutatuak taldeak oharra kaleratu zuen.

2017tik 2021era. Adierazle batzuk nabarmen aldera: bisitak %109 hazi dira; erabiltzaileak, %98; eta saioak, %88.

Tokiko informazioa jasotzeko moduak aldatzen ari dira, atari digitalek gero eta garrantzi handiagoa dute eta TXINTXARRI-ren webgunea ez da salbuespena, datuek erakusten dutenez.

2021eko eduki ikusienak

Iaz 1.282 artikulua idatzi genituen, 241 argazki galeria egin eta 160 bideo grabatu. Eduki horietatik ikusienak zeintzuk diren

**FAMILIA EREDUEI
BURUZKO ARTIKULU
SERIEAK JAKIN-MIN
IZUGARRIA PIZTU DU
IRAKURLEENGAN**

errepasatu dugu, eta bisita gehien jaso dituzten hamarrak zerrendatu. Ranking horretan jaso ditugun artikuluen %40 familia ereduie buruz maiztasun eta ekainean egin genuen erreportaje sortakoak dira. Beraz, jakin-min izugarria piztu du irakurleengan lanketa berezi horrek.

El Conquistador del Caribe telesailaren oihartzun mediatikoak isla izan du baita ere, iaz bi herritarrek parte hartu baitzuten, Mikel Arruti eta Leire Mayoze. Ttakun Kultur Elkarteak pasa diren Eguberrietarako antolatutako egitaraua, Arrapide pasealekuko trafikoko araudi berria, Maialen Chourrout piraguitari herritarrek egin zioten ongietorria, Ttakunen txokoen eta udalekuen 30. urteurrena eta Buruntzako gurutzearan eraistea izan dira beste gai interesgarri batzuk.



Ondo bidean, 22. Korrikak apirilaren 8an zeharkatuko ditu Lasarte-Oriako kaleak. TXINTXARRI

22. Korrika, goizean goiz eta ostiralarekin

Euskararen aldeko lasterketa martxoaren 31n hasiko da Amurrion, eta Donostian amaituko, apirilaren 10ean. Lasarte-Oriara bi egun lehenago iritsiko da, Usurbildik, goizean goiz, 07:11 aldera. Herriko auzo eta kaleak zeharkatu ostean, Urnietarantz joango da lekukoa

Txintxarri

Euskal Herri osoa zeharkatuko duen euskararen aldeko lasterketa hasteko bi hilabete eskas besterik falta ez direnean, ibilbide zehatzaren berri eman du AEK-k gaur goizean. 22. Korrika Arabatik abiatuko da, aurreko aldia amaitu zen herrialdetik, eta zehazki, Amurriotik. Lekukoa hartu, eta 16:30ean hasiko dira kilometroak egiten. 11 egun geroago, Donostiara iritsiko da lekukoa, 2.180 kilometroz lasterka egin eta gero. Hiriburu horretan bukatuko da aurtan.

Lasarte-Oriara bi egun lehenago iritsiko da lekukoa, Usurbildik. Iratzargailua jarri beharko du batek baino gehiagok, goizean goiz igaroko baita Korrika gure herritik, 07:11 inguruan hasita. Kale eta auzo guztiak zeharkatu ostean, Urnietarantz joango da.

AEK-k jakinarazi duenez, eragileek otsailaren 1etik aurrera erreserbatu ahalko dituzte kilometroak. Horretarako, herrian herriko AEK euskaltegi edo Korrika bulegoetara joan beharko dute. Bestalde, ohartarazi du ibilbidearen xehetasun guztiak

eta euskararen aldeko jarduera horren unean uneko egoera sakelako telefonoetan kontsulta daitekeela, Android zein IOS sistema eragileetan.

Solaskiden izena emateko

Ttakun Kultur Elkarateak eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi dute zabalik dagoela Solaskide egitasmoan izena emateko epea, urtarrilaren 30era arte. Interesa dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Ttakunek eta udalak herriko euskaltegiekin batera antolatuko dute programa: euskaraz hitz egiteko guneak eta aukerak eskaintzen ditu. Euskaraz praktikatu nahi duten *Bidelariak* eta haiei lagunduko dieten *Bidelagunak* elkartzeko dira, giro lasaiean.

54€ urtean
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

URTARRILAREN 30a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!
urtarrilaren 31ean egingo dugu zozketa

Euskara eta kultura bidelagun!

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____

Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:

Geltoki kalea 4, beheka 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:

www.txintxarri.eus/bazkidetu

Data eta Sinadura

Ttakun Kultur Elkarateak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

Ttakun kultur elkaratearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideak irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daitezke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiri aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48

Ohiturari eutsi diote ikastetxeek

Danbor hotsak herrian zehar

laz bezala, COVID-19aren pandemiak eragindako egoerara moldatu behar izan dituzte danborradak ikastetxeek. Osasun egoerak hala behartuta, gurasoek ezin izan dute seme-alaben erakustaldia ikustera joan, eta zenbaitek kanpotik ahal izan duten moduan jarraitu dute ikuskizuna. Dena den, gustura aritu dira ikasle gazteak eta San Sebastian bezpera behar bezala ospatuta amaitu dute eskola eguna.

Danbor eta kolore zuri-urdineko apaingarriak soinean egin dituzte danborrada saioak. Ikastetxeetako patioan elkartu dira denak, nahiz eta txandaka irten diren pilaketak saihesteko. Bozgorailuetatik ozen entzun ahal izan dituzte *Donostiako Martxa*, *Tatiago*, *Iriyarena* eta beste doinu ezagun batzuk (Lasarte-Oriako ereserkia, esate baterako), eta txukun-txukun segi danbor nagusien jarraipenak. Gogoz astindu dituzte danborrak eta ospakizun ederra eginda joan dira etxera, 2023ko saioak beti bezalakoak izango diren itxaropenez.



Zerua grisa egon arren, euririk ez du egin, eta Sasoeta LHko ikasleak patioa atera dira. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburu HH mailakoak ere ikastetxeko patioan aritu dira. Gurasoek kanpotik jarraitu dute emanaldia. TXINTXARRI



Garaikoetxea-Landaberriko ikasleek ere trebezia eta gogoz astindu dituzte danborrak San Sebastian bezperan. TXINTXARRI



Danborradaren gidariek fin egin dute haien lana. TXINTXARRI



Txiki-txikitatik ikasten dute herriko haurrek danborra jotzen. TXINTXARRI



astian bezperan. Doinu ezagun ugari jo dituzte arratsaldean zehar. TXINTXARRI



'Kalerik kale danborra joaz, umore ona zabaltzen hor dijoaz... Joxe Mari!'. TXINTXARRI



Danborrak astintzeko prest eta gogoz zegoen ikasle talde hau. LANDABERRI IKASTOLA



Landaberriko ikasleak, urtero bezala, anfiteatroan aritu dira. Taldeka atera dira. LANDABERRI IKASTOLA

Danborradari buruzko erakusketa jarri dute Urbilen

Larramendi ikastetxeko kideen jantzi eta tresnak jarri dituzte ikusgai urtarilaren 22ra arte, larunbatarekin

Txintxarri

Donostiako Larramendi ikastetxeko danborrada jantziak erakutsiko ditu Urbil merkatalgunea, hilaren 22ra arte, larunbata. Erakusketa goiko solairuan zabalduta dute,

"gipuzkoar askorentzat hain berezia den eguna modu sinbolikoan ospatzeko".

Danborrada egun berezia da Urbil merkatalgunearentzat, baina ezingo du ohi bezala ospatu: pandemiaren aurretik,

Larramendiko lagunak gunearen galerietan zehar ibiltzen ziren, danborrak jo eta jo. Aurten 25 urte bete ditu ikastetxeak, eta urtemuga berezi horri keinu bat egite aldera, bertako ikasleek erabiltzen dituzten jantzien erakusketa prestatu dute, eta baita aitortza egin ere: konpainiari zapi brodatu eta pin bana eman dizkie Urbileko zuzendaritzak. Esan bezala, esposizioa ikusi nahi duten herritarrek hilaren 22ra arte izango dute aukera.



Larramendi ikastetxeko jantzi dotoreak erakusten ari dira. URBIL MERKATALGUNEA



Michelin kirol gunean, berriz ere, Euskal Ligako partidaz gozatu ahal izan dute herritarrek. TXEMA VALLES

Aulkiari esker lortutako garaipena Euskal Ligan

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta Uribealdea B taldeen arteko norgehiagoka bigarren zatian erabaki da, bizkaitarren jokalariren ezbeharraren ondorioz. 16 urtez azpiko taldeak ere La Unica garaitu du Iruñean jokatutako partida borrokatuan

Txintxarri

Aurpegi ezagunez beteta atera zen Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldea Michelingo kirol guneko zelaira hilaren 16ko hitzorduan.

Hamabostekoan eta aulkian hainbat herritar izan ziren; aurrean, berriz, Uribealdea RKE B taldea.

Lehen zatia borrokatua izan zen. Nahiz eta ongi jokatu, etxeko

taldeari kosta egin zitzaion lehen entsegua egitea. Hamabigarren minutuan Jokin Belokik ireki zuen markagailua.

Mungiararak ez ziren atzean geratu eta beltzen erasoak

zapuzteaz gain, zigor kolpe bati esker gerturatzea lortu zuten.

Etxeko taldea, ordea, ez zen burumakur geratu eta 36. minutuan Alain Cuyami-k entsegua egin eta Julen Espinosak gauzatu zuen. Atsedenaldira lasai joan ziren, beraz, beltzak, 12-3ko markagailuarekin.

Bigarren zatian, aulkia erabakigarria izan zen. Bizkaitarrek ez zuten ordezko jokalaririk izan eta jokoan errugbilari batek min hartu zuen. Ondorioz, bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuten eta horrek etxeko taldearen nagusitasuna ekarri zuen. Entsegu eta gauzate ugari egin zituzten eta neurketa amaitzean, 53-3koa izan zen markagailua.

Gaztetxoaren garaipena

Hilaren 22an ere errugbi partida batez gozatzeko aukera izango da Michelin kirol gunean. Oraingoan 16 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta AVK Bera Bera taldeen arteko lehia izango da. 11:40ean hasiko da neurketa.

Beltzak La Unica garaitetik datoz. Hilaren 15ean, Iruñean 21-34 gailendu zen Gesalaga Zarautz Beltzak RTren 16 urtez azpiko taldea. Egutegiaren arabera atsedentasteburua izan arren, seigarren jardunaldian atzeratu beharreko neurketa jokatu zuten gaztetxoaren taldeek.

Partida borrokatu egin behar izan zuten beltzek. Aurkaria

14-0 aurreratu arren, ederki erantzun zuten Zarautz Beltzak taldeko gaztetxoek. 14-12 iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian ongi hasi zen. Beltzek entsegu bat egin zuten aurkariari aurrea hartuz, baina Iruñeko taldea ez zen atzean geratu; entsegu eta gauzate egin zituzten.

Zarautz Beltzak taldeko kideek azkar batean partidaren kontrola bereganatu eta La Unica ezin izan zuten berriro marrara iritsi. Beltzek, ordea, hiru entsegu eta gauzate bat lortu zituzten. Azken emaitza 21-34 izan zen.

Partida atzeratua

Ohorezko Mailako taldeak, ordea, ez zuen partidarik jokatzerik izan. Eibar RTren aurkako neurketa Eibarko Unbe zelaian lehiatu behar zen. Azken egunetako hotza zela eta, zelaia izoztuta zegoen partida hasi behar zuten orduan.

Epaileek ordubetez itxarotea erabaki zuten zelaiaren egoerak hobera egingo zuenaren esperantzarekin; alabaina, bere horretan jarraitu zuten eta partida bertan behera utzi zuten.

Norgehiagokaren data berriaren zain, ligako lehen faseko azken jardunaldiari aurre egin beharko dio hilaren 22an Ohorezko Mailako taldeak.

Oraingoan ere gipuzkoarren arteko lehia izango da, gainera. Hernani CRE izango du aurrez aurre, Astiko zelaian.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Zumaiaiko FT Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Harane, Usurbilen.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Behobia CD Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Ordizia KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Euskalduna SD Larunbata. 13:10. Michelin kirol gunean.
Usurbil FT - Ostadar SKT B Larunbata. 15:30. Harane, Usurbilen.
OHOREZKO KADETE MAILA
Euskalduna SD - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Ubitarte, Andoainen.

KADETEEN 1. MAILA, IGOERA
Mariño CD A - Texas Lasartearra CF Larunbata. 10:30. Ugalde-Ventas, Iruñen.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Kostkas KE B Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Martutene KE B - Ostadar SKT A Larunbata. 09:00. Martutene, Donostian.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Antiguoko Fontaneria Iribarren - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones Ostirala. 21:15. Pio Baroja kirol., Donostian.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Eskoriatza KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki AF - Zarautz KE A Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 2. MAILA
AZ Casa de La Rioja - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Benta Berri kiroldegia, Donostian.
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea B Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU
Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Musakola kiroldegia, Arrasaten.
KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - BKL Loinatz Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Goierri Buenbokado Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
Añorga Saskibaloia - Ostadar SKT (atzeratutako partida) Igandea. 12:00. Benta Berri kiroldegia, Donostian.

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Hernani CRE Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - AVK Bera Bera Larunbata. 11:40. Michelin kirol gunean.
PILOTA
JUBENILAK 2. MAILA - BIKOTEKA
Intza KE - Intxurre Larunbata. 16:15. Michelin pilotalekua.
KADETEAK 2. MAILA - BIKOTEKA
Bergara - Intza KE Ostirala. 20:00. Udaleko pil., Bergaran.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Aixerrota - Ostadar SKT (atzeratutako partida) Larunbata. 11:00. Fadura kirol., Getxon.
Ostadar SKT - Navarvoley Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko junior mailako judoek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Larunbata. 16:50. Jostaldi kiroldegia, Hondarribian.
IGERIKETA
KLUBEN KOPA
Buruntzaldea IKTko igerilariak Gipuzkoako Kluben arteko Kopa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Usabal kiroldegia, Tolosan.
ATLETISMOA
PLP
Ostadar Atletismoa saileko federatuek aire zabaleko parte hartze libreko saio izango dute. Xabalina eta mailu-jaurtiketa probak jokatuko dituzte. Igandea. 10:00. Anoetako Miniestadioa, Donostian.

Intzako jubenilek garaipena eskuratu dute

Udaberri Txapelketa ongi hasi du jubenil mailako bikoteak; 12-22 irabazi dio Gazteluperi. Kadete mailako bikoteak ere lan ona egin du Aloña Mendiren aurka; azken tantoetan, ordea, oñatiarrek ziurrago jokatu eta partida eskuratu dute

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko jubenil zein kadete bikoteek Udaberri Txapelketako partidak jokatu zituzten. Nahiz eta bi bikoteak sendo jardun, emaitzak ezberdinak izan ziren. Jubenilek garaipena erdietsi zuten; kadeteek, berriz, Aloña Mendiren aurka galdu zuten.

2. Mailako jubenilek Zaldibian jokatu zuten 2022 urteko Udaberri lehiaketako neurketa. Lehen jardunaldian Gaztelupe izan zuten aurkari, eta 12-22 gailendu zen Lasarte-Oriako bikotea.

Jose Felix Solano prestatzailearen hitzetan, neurketak zaila izan behar zuen arren, Haritza Diaz de Guereñuk eta Peru Urdanpilletak partida osoa jokatu zuten. "Intzako bikoteak egindako jokoari esker, partida erraz irabazi zuen", adierazi du Intzako entrenatzaileak.

Garaipenari esker, jubenil mailako bikotea sailkapeneko buru jarri da, Hernanirekin batera. Hala ere, martxora arte jokatu da txapelketa eta partidaz partida joango da bikotea.



Intza eta Aloña Mendiko kadeteen arteko neurketako irudia. TXINTXARRI

Intxurre izango du aurrez aurre txapelketako hurrengo jardunaldian. Hitzordua Michelingo kirol gunean izango da, hilaren 22an, 16:15ean.

Azken tantoen garrantzia

Michelingo kirol gunean, ordea, bestelakoa izan zen azken emaitza; 2. Mailako kadeteek 18-22 galdu zuten.

Partida luze eta gogorra jokatu zuten Beñat Olazabalek eta Xuban Urdaliletak Aloña

Mendiko Guridi-Madinabeitia bikotearen aurka. Etxekoak ederki jardun ziren partidaren zehar; alabaina, Oñatiko bikoteak ziurrago jokatu zuen azken tantoetan eta horrek partida irabaztera eraman zuen.

Emaitza aurkakoa izan arren, Intza bere multzoko sailkapeneko bigarren postuan dago, Aloña Mendi 1 eta Intxurre elkarteetako bikoteekin berdinduta. Hurrengo neurketa hilaren 21ean jokatu du, Bergararen aurka.

Eskola Kirolako lehiaketan etena, onarpenik ez duen neurria

Gipuzkoako hamazazpi federazioek neurria kentzea galdegin diote Eusko Jaurlaritzari

Txintxarri

Hilaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren aurkako hezkuntzako protokolo berria aurkeztu zuen. Eskola Kirola egitasmoaren jardunean eragiten zuen neurrietako batek, eskola mailako txapelketak bertan behera uzteak. Bizkaiako, Arabako zein Gipuzkoako Foru Aldundiak, egitasmoa antolatzaile modura, neurria onartu zuten; alabaina, Gipuzkoako Foru Aldundiak, salbuespen bat egin zuen, hilaren 8-9ko asteburuan eskola lizentzia duten klubek antolatutako txapelketak baimendu zituen.

Aurkako ahotsak

Eusko Jaurlaritzak neurria jakinaraztearekin batera hasi ziren aurkako ahotsak argitara ateratzen. Kirol elkarte zein federazio ugari oharrak kaleratu zituzten eta talde politikoei ere galdegin zuten Eusko Legebiltzarrean. Bultzatzaile Euskadi egitasmoak ere bere iritzia kaleratu zuen.

Hilaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiak ohar bat kaleratu zuen. Horretan gogoratzen zuen eskola mailako jarduerak ez dela guztiz eten; entrenamenduak baimenduta daude.

Era berean, eremuko udal kirol teknikariei, Eskola Kirola kudeatzaileei, federazioei zein kirol elkartei egindako

galdeketa berri ematen zuen %77ak uste du debeku neurria oso kaltegarria dela, edo ez daude ados. Gipuzkoako Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren iritzia ere jakitera eman zuen. Erakundeak Eskola Kirolaren inguruan orain arte hartutako neurriekin ados ez dagoela aditzera eman zuen, ezta indarrean direnekin ere. Hala eta guztiz ere, lehiaketa jarduna hilaren 28ra arte etenda egongo dela berretsi zuen. Beraz, hilaren 15-16 asteburuan aurreikusitako zeuden maila horretako jardunaldiak bertan behera geratu ziren.

Debekua altxatzea

Hilaren 17an, Gipuzkoako hamazazpi federazioek elkarrekin prentsaurrekoa eskaini zuten, eta debekua aste horretan altxatzea eskatu zuten.

Jaurlaritzaren erabakia "ulertezina" dela eta eskola mailako kirola eragozten duen erkidego bakarra Euskadi dela azaldu zuten.

Adostutako testuan adituen iritzia aurkako neurria ere badela gogoratu dute: "Ez da inolako ebidentzia zientifikotan oinarritzen eta ez du inolako onurarik osasun egoera hobetzeko".

Eskaerak ez du erantzunik jaso. Beraz, maila horietako txapelketek oraingo ez dute aurrera egingo.

Ostadarreko boleibol taldeek, zorterik ez Gabonen ostean

COVID-19aren aurkako neurriek kadete mailako Gipuzkoako Txapelketaren hasiera atzeratu dute

Txintxarri

Urteko lehen partidei aurre egin zieten Ostadar Boleibola saileko senior zein jubenil taldeek. Maialen Chourraut kiroldegian zein Zarautzeko Lizardi BHIin jokatuak aurkaria gailendu zen arren, jubenil mailako taldeko kideek ederki egin zion aurre Lizardiri.

Euskal Ligako bederatzigarren jardunaldiaz gozatu ahal izan

zuten boleibol zaleek hilaren 15ean, Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar SKT eta Arizan Gallartaren Ahotsa taldeen arteko partida jokatu zen. Asier Acuriolak zuzentzen dituen jokalariek ezin izan zieten bizkaitarren sake eta erasoei ongi aurre egin eta 0-3ko (18-25, 10-25 eta 14-25) markagailuarekin amaitu zen partida.

Hilaren 22an eta 23an, hitzordu bikoitza izango du taldeak. Aixerrota eta Navarvoley taldeen aurka. Bigarren partida etxean jokatu du, 11:00etan.

Jubenil taldeak, urte berriarekin batera, Gipuzkoako Txapelketako lehia hasi du. Lehen jardunaldia Lizardi taldearen aurka jokatu zuen. Partida borrokatua izan arren, 3-0 (25-21, 26-24 eta 25-19) gailendu zen aurkaria.

Hurrengo norgehiagoka hilaren 29-30 asteburuan jokatu dute Hernaniko mutilen taldearen aurka.

Kadeteak zain

Kadete mailako taldea, ordea, Gipuzkoako txapelketa noiz hasi



Ostadarreko jokalariek aurkariaren erasoa oztopatu nahian. TXINTXARRI

zain dago. Hilaren 15ean aurreikusia bazegoen ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako COVID-19aren aurkako azken neurriek Eskola Kirolako lehiaketak

hilaren 28ra arte eten ditu. Ondorioz, hilaren 29ko asteburura atzeratu dute txapelketaren hasiera. Ostadar A multzoan lehiatuko da.

Jubenil A taldea, ederki Kopako lehia

Berdinketa eta garaipen bat erdietsi ostean, bere multzoko buru da urdin-beltzen A taldea. Texas Lasartearra elkarteko Kadeteen 1. Mailako taldeak, berriz, ez du hainbesteko zorterik izan Igoera fasean; bi jardunaldietan aurkaria gailendu da

Txintxarri

Liga, Igoera fasea eta Kopa. Lasarte-Oriako futbol taldeak denboraldiko garai ezberdinetan daude eta Michelin kirol guneko zelaian hiru lehiaketetako partidez gozatu ahal izan zen hilaren 15ean eta 16an. Garaipenak, porrotak edo berdinketak. Hamaika emaitza izan ziren eta neurketa batzuetan, gainera, gol festa ederra ikusi ahal izan zen. Ostadar SKTko Jubenilen 1. Mailako A taldeak 5-0 irabazi zion Hernaniri; Texas Lasartearra taldeko kadeteek, ordea, kontrako emaitza izan zuen Burumendiren aurka.

Kopa lehiaketako bigarren jardunaldia jokatu zuen talde urdin-beltzeko jubenilen 1. Mailako A taldeak. Hernanirekin neurtu zituen indarrak.

Zelaiara hotz atera arren, Mikel Puertoren jokalariek ederki baliatu zituzten gol aukerak eta azken emaitza horren erakusle izan zen, 5-0.

Talde urdin-beltzak txapelketa hasiera ona izan du. Lehen jardunaldian Ordiziarekin bana berdindu ostean, hilaren 15eko garaipeneko puntuek bere multzoko sailkapeneko lehen postura igo dute; alabaina, Intxurrerekin berdindua dago, 4 punturekin.



Hernani taldeko jokalaria Ostadarrekoari baloia kendu nahian. TXINTXARRI

Texas Lasartarra taldeko Kadeteen 1. Mailako taldea, berriz, igoera fasea lehiatzen ari da eta lehen bi partida gogorre aurre egin behar izan die.

Beti Ona CD A eta Burumendi izan ditu aurkari –egun sailkapeneko lehen bi postuetan dauden taldeak– eta ezin izan du punturik eskuratu. 7-2 eta 0-5 izan dira emaitzak, hurrenez hurren.

Beste emaitzak

Michelingo kirol guneko zelaian zein kanpoan gainerako taldeen

emaitzak honakoak izan ziren: Ohorezko Erregional maila, Tolosa CF 2 - Ostadar SKT 0; Gorengoen Maila, Ostadar SKT 2 - 2 Astigarragako Mundarro FKE; Erregionalen 1. Maila Igoera fasea, Segura Goierri KE 6 - Ostadar SKT 1; Ohorezko Jubenil Maila, Orioko FT 0 - Ostadar SKT 4; Jubenilen 1. Maila Kopa, Amara Berri KE B 5 - Ostadar SKT B 3; Ohorezko Kadete Maila, Antiguoko KE 1 - Ostadar SKT 0; Kadeteen 1. Maila Kopa, Usurbil FT B 1 - Ostadar SKT B 1 eta Ostadar SKT A 3 - Arrupe Chaminade CD B 0.

laguntzen dituen NW Blind gailuak erosi ditu eta horiekin egingo dute lan saioetan.

Ikastaroaz gain, Ipar Martxa taldeak integrazioaren alde lanean jarraituko duela jakinarazi du eta berriki erositako gailuei esker, ikusmen murriztua edo pertsona itsuak taldearen asteroko entrenamenduetara batu daitezkeela ezagutarazi du. Horregatik Lasarte-Oriako zein inguruko herrietako lagunei gonbita egiten die taldearen saioetan parte hartzera.

Integrazioaren aldeko Ipar Martxa ikastaroak

Ostadar Ipar Martxa taldeak ikusmen murriztua duten pertsonen taldera batzeko deia egiten die

Txintxarri

Ostadar SKTko Ipar Martxa eta Kirol Egokituko sailek elkarlanean ikusmen murriztua duten pertsonen zuzendutako Ipar Martxako ikastaroa antolatzen ari dira.

Jarduera Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteko kideei bideratua dago eta bi saio egingo dituzte bata Arrasaten hilaren 28an, eta bestea, Donostian 29an.

Ikastaroa aurrera eramateko kirol elkarteak gida lanak egiten

Kirol zerbitzuak 2022. urteko itxiera egunak jakinarazi ditu

Lasarte-Oriako kirol instalazioen neguko ordutegia gogorarazi dute, baita bulegoko ordutegia ere

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak neguko ordutegia gogorarazi eta 2022 urteko itxiera egunak jakitera eman ditu.

Ordutegiari dagokionez, Maialen Chourraut kiroldegia astelehenetik ostiralera 07:00etatik 22:30era irekia dagoela nabarmendu du; larunbatetan, 09:00etatik 20:00etara, eta igandetan eta jai egunetan, 09:00etatik 13:00etara.

Igerilekuak ere hiru ordutegi ezberdin ditu. Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era dago erabilgarri; larunbatetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igande eta jai egunetan goizez bakarrik, 09:00etatik 13:00etara.

Bulegoak, berriz, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eskainiko du zerbitzua eta asteazkenetan arratsalde ere egin ahalgo dira izapideak, 17:00etatik 19:00etara.

Michelin kirol gunea, berriz, asteen zehar arratsalde bakarrik dago erabilgarri, 15:30etik 22:30era; larunbatetan, berriz, 09:00etatik

Itxiera egunak

Maialen Chourraut kiroldegia

- **Urtarrila:** 1 eta 6.
- **Maiatza:** 1.
- **Ekaina:** 25 (arratsaldez) eta 29.
- **Uztaila:** 24tik 31ra.
- **Abuztua:** 1etik 7ra.
- **Abendua:** 24, 25 eta 31.

Michelin kirol gunea

- **Urtarrila:** 1 eta 6.
- **Apirila:** 14tik 18ra
- **Maiatza:** 1.
- **Ekaina:** 25 (arratsaldez) eta 29.
- **Uztaila:** 3, 10, 17 eta 24tik 31ra.
- **Abuztua:** 1etik 7ra eta 14, 21, 28.
- **Azaroa:** 1.
- **Abendua:** 8, 24, 25 eta 31.

20:00etara dago irekia eta igande eta jai egunetan goizez erabil daiteke, 9:00etatik 13:00etara.



SAN SILVESTRE LASARTE-ORIA


Sansilvestreak baditu irabazleak

Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketarik ez egon arren, antolatzaileek euren Facebook orrialdearen bitartez zozketa jarri zuten martxan eta urtarilaren 10ean, onuradunek euren sariak jaso zituzten Alcar Leihok dendan. Lourdes Fernandezek eta Laura Sanchezek Alcarrek babestutako saski bana eraman zuten etxera; Nhara Hernandezek ardo eta olio sorta eta Bodeguita Escondidarako lau pertsonentzako bisita eskuratu zituen eta Jorge Redondok, berriz, Bodeguita Escondidarako sei pertsonentzako bisita.

ZORION AGURRAK



Maren
Zorionak printzesa!
Ondo pasa zure urtebetetze egunean, muxu pila ebekoen partez. Maite zaitugu!



Aratz
Zorionak Aratz!
Dagoeneko 12 urte. Segi hain jator eta maitagarri. Urte zoragarri izan dezazun! Aita, ama, Aiur eta Koa. Muxu pila

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberrak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

KOMIKIA



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

OHARRA

Mendebaldeko Saharako errefuxiatuentzako janaria bilketa

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak janaria bilduko du urtarrilaren 29an, larunbatarekin, ondoren Mendebaldeko Saharan bizi diren pertsonen bidaltzeko. Eroski eta BM supermerkatuen atarian jarriko dituzte kutxak, herritarrek elikagaiak eta bestelako produktuak bertan utz ditzaten.

Pasta, arroza, azukrea, lekaleak, kontserbak eta konpresak eros ditzakete bezeroek. Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko kideak 10:00etatik 20:00etara egongo dira Super BM eta Eroski supermerkatuetan.

Horrez gain, herriko ikastetxeetan ere egingo dute janari bilketa, urtarrilaren 24tik 28ra, bi egunak barne.

Udal liburutegiko egutegia

Aste Santuan eta uztailean izan ezik, Udal Liburutegia 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era zabalduko dute astegunetan, eta 09:30etik 13:00era larunbatetan. Abuztuaren itxi egingo dute.

Apirilaren 11tik 13ra eta 19tik 22ra 08:00etatik 14:00etara irekiko dute liburutegia. Uztailean, hauxe izango da ordutegia: 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara astelehenean, eta 08:00etatik 14:00etara, gainerako astegunetan. Asteburuetan itxi egingo dute.

Jaiegunak ere zehaztu dituzte. Egun horietan liburutegia itxia egongo da:


- Urtarrilak 1, 6 eta 8.
- Apirilak 14, 15, 16, 18 eta 23.
- Ekainak 29.
- Uztailak 2, 9, 16, 23, 25 eta 30.
- Abuztu osoa.
- Irailak 3, 5, 6, 9, 10, 17 eta 24.
- Urriak 12, 29 eta 31.
- Azaroak 1.
- Abenduak 6, 8, 9, 10, 24 eta 31.

Heriotzen berri eman


Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI aldizkariako Heriotzak atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 21




Larunbata, 22




Igandea, 23




Astelehena, 24




Asteartea, 25



Asteazkena, 26



Osteguna, 27



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	DE ORUE	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 22	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 23	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 24	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 25	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 26	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 27	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

SUDOKUA

6	1					5	9
	5	3				6	
			5	6	4		
	9					6	7
			2	4			
						4	1
		5		6			
7	8	2				5	6
				7	5	2	

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
SALDU
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakutuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA
ESKANTZAZA
Etxeko lanak egin eta bi pertsona adindu zaintzeko pertsona behar da. Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-prestakuntza izan behar dute. Salbuespenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratua, nomina eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia: 656 41 15 10
Klase partikularrak emateko pertsona behar

da. DBH mailan interesatua bazaude jarri harremanetan irakasle@yahoo.com bidez.
ESKARIA
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.
Adineko pertsonak zaindiko nituzke. Zaintza ikastaroa egin dut.

Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.
Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.
Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

SALEROSKETA
SALDU
Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 616 83 11 52.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA ANTZERKIA. *Mi hijo solo camina un poco más lento* ikuskizunaren emanaldia egingo du Tanttaka Teatroa konpainiak. Mia izeneko emakume bat da protagonista. Etxean lana besterik ez du egiten, eta bere deabruen aurka borrokatzen du, familiako hainbat kide zaintzen dituen bitartean: gurasoak, senarra, alaba eta Branko semea. Azken horrek mugikortasuna pixkanaka garalazten dion gaixotasun bat du, eta 25 urte bete dituen egunean, familiak festa bat prestatu dio. Jatorrizko istorioa Balkanetatik dator, Ivor Martinic-ek idatzi baitzuen. Itzulpena Aizpea Goenagak egin du, eta Fernando Bernuesek zuzendu. Antzezleetako batzuk dira Mireia Gabilondo, Ane Gabarain, Klara Badiola edota Miren Arrieta. Urtarrilaren 22an, kultur etxean.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Antzerkia

Mi hijo solo camina más lento antzezlanaren oholzaratuko du Tanttaka Teatroa konpainiak. Sarrerek hamabi euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

USURBIL Antzerkia

Bidaide antzezlanaren oholzaratuko dute. Sarrerek hamabi euro balio dute. Kultur etxea, 18:00etan.

HERNANI Antzerkia

Zuhaitzak landatzen zituen gizona haurrentzako antzezlanaren oholzaratuko du Gorakada Teatroa taldeak. Sarrerak kultura.hernani.eus webgunean erosi daitezke eta 3,5 euro balio dute. Biteri kultur etxea, 12:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema

Clifford el gran perro rojo filma proiektatuko dute. Sarrerek lau euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

West Side Story filma emango

dute. Sarrerek sei euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

URNIETA Antzerkia

Ikimilikiliklik haurrentzako antzezlanaren taularatuko du Marie de Jongh konpainiak. Sarobe gunea, 17:30ean.

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Literatura

Eduardo Galeanok idatzitako *Latinoamerikaren zain urratuak* saiakera euskaratu du Iñaki Alegriak berriki. Liburu hori aurkeztera etorriko da. Kultur etxea, 19:00etan.

HERNANI Ipuin kontaketa

Maite Francok ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Bi saio izango dira. 17:30ean, lehena, eta 18:15ean, bigarrena. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Libertad filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek sei euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan erosi daitezke. Kultur etxea, 20:30ean.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

El valle de las linternas filma proiektatuko dute. Sarrerek lau euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Cerca de ti filma emango dute. Sarrerek sei euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

USURBIL Kirol hitzordua

Irisasi BTT-ren "*Hotzak Akabatzen*" probaren hamargarren edizioa. Mendi bizikletan Andatzako buelta egiteko aukera. 500 lagunentzako lekua egongo da. Izen ematea eta informazio gehiago irisasibtt@gmail.com.

Mikel Laboa plaza, 09:00etan.

USURBIL Dokumentala

Apaiz kartzela dokumentala proiektatuko dute. Sarrerak aldeztatik eskuratu behar dira usurbilkultura.eus atarian. Ikus-entzunezkoa amaitu ostean, solasaldia izango da dokumentalaren zuzendarietako batekin eta protagonistetako batekin. Sutejiko auditorioa, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

KULTUR ETXEA

'Clifford el gran perro rojo'
Ostirala 21
17:00.

'West side story'
Ostirala 21
19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Trash'
Larunbata 22
17:00.

HERNANI

BITERI

'Seis días corrientes'
Ostirala 21
22:30.

Larunbata 22
19:30.

Igandea 23
19:30.

'Dos colegas y la gran bestia'
Larunbata 22
16:30.

Igandea 23
16:30.

USURBIL

URBIL

'Canta 2'

Ostirala 21

15:45, 19:15.

Larunbata 22

15:45, 19:15.

Igandea 23

15:45, 19:15.

'Agente 355'

Ostirala 21

16:30, 19:25,

22:20.

Larunbata 22

16:30, 19:25,

22:20.

Igandea 23

16:30, 19:25,

22:20.

'El callejón de las almas perdidas'

Ostirala 21

15:45, 18:35,

21:55.

Larunbata 22

15:45, 18:35,

21:55.

Igandea 23

15:45, 18:35,

21:55.

'El método Williams'

Ostirala 21

16:00, 18:25,

21:40.

Larunbata 22

16:00, 18:25,

21:40.

Igandea 23

16:00, 18:25,

21:40.

'Lunáticos'

Ostirala 21

16:10.

Larunbata 22

16:10.

Igandea 23

16:10.

'Mamá o Papá'

Ostirala 21

19:05.

Larunbata 22

19:05.

Igandea 23

19:05.

'Matrix Resurrections'

Ostirala 21

15:50, 22:00.

Larunbata 22

15:50, 22:00.

Igandea 23
15:50, 22:00.

'One Shot (Misión de rescate)'

Ostirala 21

19:15, 21:35.

Larunbata 22

19:15, 21:35.

Igandea 23

19:15, 21:35.

'Scream'

Ostirala 21

15:50, 19:00,

21:45.

Larunbata 22

15:50, 19:00,

21:45.

Igandea 23

15:50, 19:00,

21:45.

'Spider-Man: No Way Home'

Ostirala 21

15:45, 18:30,

21:50.

Larunbata 22

15:45, 18:30,

21:50.



LABURPENA

'West side story'

Zuzendaria: Steven Spielberg. **Gidoia:** Tony Kushner. **Argazkia:** Janusz Kaminski. **Musika:** Leonard Bernstein. **Ekizleak:** Amblin Entertainment, 20th Century Studios. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2021). **Iraupena:** 156 minutu. **Generoa:** Musika, erromantzea, drama. **Aktoreak:** Rachel Zegler, Ansel Elgort, David Alvarez, Ariana DeBose, Rita Moreno, Mike Faist, Josh Andrés Rivera, Corey Stoll, Brian d'Arcy James, Maddie Ziegler, Ana Isabelle, Reginald L. Barnes, Jamila Velazquez.

Maitemindutako nerabeak

Tony eta Maria nerabeak, elkarren aurka dauden bi kaleko taldeetako kide diren arren, Jets eta Sharks, New Yorken maitemindu ziren 1950eko hamarkadan. *West Side Story* musikal ezagunaren bertsio berria da. Broadwayko antzezlana

ezagun baten egokitzapena, eta Shakespearearen Romeo eta Julietaren istorioa modernizatzen du.

Steven Spielberg-ek zuzendutako lana da eta Ansel Elgort eta Rachel Zegler dira protagonista nagusiak.



Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



- Euskara ahora proiektua: irratia eta aldizkaria. Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako.

- Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko.

- Agenda 30 proiektua: inguruarekin bat eginez.

- Ingelesa: atzerrira begira.

- Sare hezkuntza gelan: konpetentzia digitala lantzen.

- Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak.

- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak.

- Eskola orduz kanpoko jarduerak.

- Goiz txoko zerbitzua.

- Jangela zerbitzua.

- Garraio zerbitzua.



MATRIKULAZIO EPEA:
urtarrilaren 17tik 28ra

Kalbario bidea 4, Tel. 943-36 12 26
Zumaburu 13, Tel. 615 74 47 52
zuzendaria@sasoeta-zumaburu.eus

